

# ERDU PRESS

ARRIETA • FRUIZ • GAMIZ-FIKA • MEÑAKA

EUSKARA ZERBITZUA

35. zk.

2009ko zemendia

# ON EGIN !!



**2010EKO EGUTEGIA: GURE HERRIETAKO ERRETRATUAKAZ**

Euskera datorren urteko egun guzti-guztietan be gure etxe eta bizitzetan presente euki eta erabili daigun, Arrieta, Fruiz eta Gamiz-Fikako Udalek "Alkarregaz beti euskeraz" egutegiak kaleratu dauz. Egutegian hiru udalerrietako antxinako argazkiak eta zenbait esaera jarri dira. Egutegia etxe guzti-guztietara bialduko da, debalde. Urte barri on-ona izan daizuela danok!!!

**IPUIN LEHIAKETA 09**

Aurtengo abenduan Ipuin Lehiaketaren XII. edizinoari ekingo deusagu. Bost-sei urte bitarteko ipuina marrazki baten bidez irudikatuko dabe, eta adin horretatik aurrerako guzti-guztiek letrak jarriko deusiez irudimen oparoari. Lanak Arrieta, Fruiz, Gamiz-Fika edo Meñakako udal bulegoetan entregatu behar dira; horretarako azken eguna abenduaren 2a. Sari banaketea, aurtengo honetan, Arrietan egingo da, abenduaren 18an (barikua), 19:30etan, eta, beti bezala, opariak egingo dira parte hartzaile guztientzat.


**KOMIKI TAILERRA GAMIZ-FIKAN**

Gamiz-Fikako Udalak Komiki tailerra antolatu dau 11-14 urte bitarteko gaztetxoentzat. Tailerra abenduaren 7an (astelehena) egingo da, Fikako KZ gunean, goizeko 10:00etatik 13:00era. Ikastaroa, batez be, praktikoa izango da eta bertaratzen direnek komiki bat egiteko teknikak ikasiko dabez. Oso interesgarria izango da, animatu zaitezte !!!

**TAPIA ETA LETURIA MEÑAKAN**

Urriaren 3an Tapia eta Leturia egon ziran Meñakan. Bikoteak 25 urte daroaz alkarregaz jotzen eta ospatuteko Meñaka aukeratu eben; izan be, Meñaka herri berezia da Tapia eta Leturiarentzat, eta eurak be bai meñakarentzat.

**IPUIN TAILERRA EGINGO DA ARRIETAN** 7-12 urte bitarteko gaztetxoentzat, Antton Iruña kontalari eta idazle ezagunaren eskutik. Horra ba, ipuinaren sekretu guztiak ezagutzeko berebiziko aukerea, azaroaren 20an eta 23an, arrastiko 17:30etan, Arrietako ludotekan. Interesatuta zagozenok emon izena ludotekan edo udaletxean.



**ZINEA EUSKERAZ GAMIZKO LIBURUTEGIAN.** Eguberrietan gaztetxoak oporretan dagozala aprobetxatuta zine emonaldiak egingo dira Gamizko liburutegian. Hona hemen egutegia: lehenengo emonaldia, abenduaren 26an (zapatua), eguerdiko 12:00etan; eta bigarrena, urtarrilaren 2an (zapatua), eguerdiko 12:00etan.

**BERTSO AFARIA** egingo da zementiaren 28an (zapatua) Arrietako herriko tabernan, gaueko 21:00etan. Bertsolariak IRATXE IBARRA eta ANJEL MARI PEÑAGARIKANO izango dira. Sarrerak salgai dagoz Arrietako udaletxean eta herriko tabernan. Prezioa: 25 €.



**UDAL LIBURUTEGIKO ALTXORREN BARRI EMONGO DABE FRUIZEN** azaroaren 28an (zapatua). Arratsaldeko 18:00retan, Apika taldekoek ipuin zoragarriak eskainiko deusiez udal liburutegira hurreratzetan diran guztie; eta horren ostean, sari banaketea eta txokolate gozoa izango dogu.

**TXORI TAILERRA MEÑAKAN**

Guztira 3 saio/tailer izango dira. Lehenengo saioa azaroaren 21ean egingo da eta 6-12 urte bitarteko umei egongo da zuzenduta; txorienzako kuxkak egingo dabez eta janaria jarriko jakie neguan zer jan eduki dagien. Tailer honeek sensibilizazioa landu eta bide batez ingurumena zaintzea daukie helburu. Tailerrez David Henderson arduratuko da, Txori Alai alkarteko kidea.

# MEÑAKA



Liburutegiaren alde egindako apustu eta ahaleginak fruituak emoten jarraitzen dau Meñakan. Ikusi besterik ez dago, astean-astean, bertara hurbiltzen diranen interesa eta antolatzen diran ekimenetan egoten dan parte hartze eta inplikazio handia.

Orrialde honetara urriaren 24an (Liburutegien Nazioarteko eguna izan zala aprobetxatuta) MEÑAKAKO LIBURUTEGIAN haur zein nagusientzat antolatu ziran ekintzen laburpentxoak dakargu .

Urriaren 20an, berbarako, 2eta 3 urte bitarteko haurrentzat "Koloretakoko lpuina" saioa antolatu zan, eta parte hartze benetan polita izan

genduan: 11 ume eta 15 guraso bertaratu jakuzan!!!

Urriaren 22an, 3 eta 5 urte bitarteko haurrentzat "Hartzatxo eta ipuin bidaiariak" saioa antolatu zan, eta 13 ume hartu eben parte.



food-ari buruz be berba egin eben eta danen artean errezeta bat idatzi eben taldeko argazkiakaz enkoadernatutako liburu batean. Jakizue, egindako errezeta-liburuan interesa badozue, liburutegiko sukaldaritza apalean dozuela.



Eta amaitzeko, urriaren 30ean helduentzako "Errezeta liburu irudiztatua" tailerra egon zan. Hamasei, hamasei! andrak egin eben tailerra eta errezeta bat zelan idatzi ikasi eben, slow

Urriaren 31n Meñakatxu Alkartekoek antolatuta Halloween eguna ospatu eben Meñakan. Euskal Herriko ohi-tura izan ez arren, ekimenak erantzun benetan polita izan eban; izan be, jai eta festa deiari gurean nork esan ezetz?! Hona argazki pare bat:





# GAMIZ-FIKA

## OLENTZEROREN BASERRIA



Igaz hasitako ekimenagaz aurrera egingo dau Gamiz-Fikako Udalak, eta aurten be, gabon sasoiari, Olentzeroren baserria ezagututeko aukerea emongo deusku.

Bisita abenduaren 24an egingo da, goizeko 11:00etatik 13:00etara. Taldea, gehienez, 35 lagunekoa izan daiteke; interesa dozuenez emon izena udaletxean, horretarako azken eguna abenduaren 18a (barikua). Baldintza bakarra: Gamiz-Fikan erroldatuta egotea. Izena emonekoen kopurua 35 lagunetik gorakoa bada, zozketa egingo da.

Goizean Olentzeroren etxea bisitatu eta arratsaldean, Olentzero beragaz aurrez aurre egoteko aukerea eukiko dogu Fikako plazan.

Hona hemen, laburbilduta abenduaren 24ko egitarua:

### ABENDUAK 24 (Eguena)

11:00etatik 13:00: Olentzeroren etxea bisitatu Mungian.

18:00eretan: Kontzertua Fikako eleizan.

19:00retan OLENTZEROREN ETORRERA, OPARIAK eta TXOKOLATEA Fikako plazan.

**44**  
**DURANGOKO**  
**EUSKAL LIBURU**  
**ETA DISKO AZOKA**  
 2009ko Abenduaren 4tik 8ra



## LIBURU ETA DISKA AZOKA DURANGON

Abenduaren 5ean (zapatua) Gamiz-Fikako Udalak autobusa jarriko dau Durangoko liburu eta diska azokara joateko.

URTEN: Gamizko plazatik: 10:00etan  
 Fikako plazatik: 10:10ean

ITZULI: Durangotik 17:00etan

PREZIOA: 1,5 €

Interesa dozuon herritarrok udaletxean emon behar dozue izena. Azken eguna: abenduaren 2a.



# FRUIZKO

## UDAL LIBURUTEGIA...



...ALTXORREZ BETE-BETERIK



**AURKITU ZEUREA ETA  
EMON HORREN BARRI**

**ATEAK ZABAL-ZABALIK, ZURE ZAIN !!**

**Astelehenetik barikura  
17:00etatik 19:00etara.**

### KONTUTAN HARTU:

- 1.- Parte hartzaile bakoitzak (gitxienez) liburu bat irakurri behar dau urrian eta beste bat azaroan.
- 2.- Irakurritako liburua kontutan hartuta FITXA BETE eta liburutegiko Saioari emon.
- 3.- Azaroaren 28an (zapatua) jai bat egingo dogu parte hartzaile guztiok eta opariak banatuko dira. 18 urte beteta daukiezan parte hartzaileen artean afari bat zozketatuko da!!!!



**Eriz magoak ugerlekuetan eskainitako saioagaz ikaragarri disfruitatu genduan adin guztietakook.**



**Fruizko liburutegian altxor pila-pila aurkitu ebezan igazko parte hartzaileek. Aurtengoak be ez dira atzean geratuko, seguru; izan be, gure liburutegian fruiztar beste altxor dago.**



# UDAGOIENeko LORAK GUREAN

## JAVIER OTAZUA LOTINA FRUIZTARRARI ALKARRIZKETA

### 1. Noiztik datortzu afizinoa? Zelan hasi zinan? Nork erakutsita ikasi zenduan?

Ni hasi nintzan orain dala lau-bost urte edo, txakurregaz joaten nintzan paseoan eta holan, ikusi lantzean behin eta bat hartu, Felixeri galdetu ona dan eta holan hasi nintzan.

### 2. Orain lehen baino perretxiko gitxiago, antzeratsu...? Zergaitik izan leiteke??

Aurten urten dau asko baina bai, urterik urtera gitxiago dauz, ni ibiltzen nazen lekuetan gero eta eskasago dauz ze, gero eta jente gehiago dabilenez... Felixek be esaten dau hazia galdu egin dala, eroan eskadalu egiten da, Mungiatik-eta ze etorten dan honantza, ene!!! Urte batzuk hobeak izaten dira, aurtengoa, berbarako, ona izan da, aurten inoizkorik gehien egon da zera... arrautze gorrin-goa edo arrautze perretxikoa esaten jakona.



### 3. Zeintzuk dira hemengo, gure inguru honetako perretxiko espezierik ohikoenak???

Ba, hemen inguruan arrautze perretxikoa, onddoak, "pies azules" (ziza hanka urdinak), pardilak be bai hori da zuria eta orain urte bi edo "no comestible" ipini eben baina gure Igorrek beti eroaten deutso beharreko bateri, alturrekoak ez daukola kalterik esaten dau, gero txanpinoiak, galanpernak be bai, niskaloak be pinudietan asko.

### 4. Noiz da perretxikotan joateko sasoirik onena? Udagoiengan zeintzuk espezie daukoguz?? Eta neguan?? Udabarrian??

Bagilean hasi egiten dira banaka batzuk urtetan, gero urrian be asko, uda hasieran nekez urtetan dira banakak, eta "ziza hanka aurdinak" neguan eta gero urrutxek udabarrian, urrutxek haretzan kontran urtetan dira, halan berde antzeko bat da gozoa jateko, ona, gitxi urtetan dau honek.

### 5. Perretxikotan lehenengo aldiz doanari ze gomen-dio emongo zeunskio??

#### Zer eroan behar da?? Zelan hartu behar dira perretxikoak? Zeintzuk?

Konsejue emoteko... otzara eroan behar da esporak zabaldu daitezcan, eta bertan hartzen dan lekuan garbitu hazia jausi daiten bertan, garbitu bertan egin behar da, perretxikoak atera eta bertan garbitzen dodaz nik. Perretxikozale batzuk onddoak-eta batu eta gero kotxe ondoan garbituten dabez inork ez ikusteko non hartu dabezan baina bertan lekuen garbitu behar dira.

Kutxilo bat eroaten dot beti, hau da Igorrek ekarri deustan kutxiloa oin holakoak atera dabez, honegaz ebagi eta beste honegaz garbitu. Jateko ez dira uregaz garbitu behar ostantzean galdu egiten dira eta.







**6. Perretxikozale on baten eta "domingero" baten arteko desbardintasunak??**

Ba, badago jentea esaten dauena plastikoagaz doana ez dala seterue.

**7. Ze batuten dozuz danak ala behar dozuzanak bakarrik jateko?**

Nik jateko dirazan danak batuten dodaz, ikusten dodazanak batu egiten dodaz eta gero kongelatu.

**7. Nafarroan, Sorian... perretxikoak batzearena mugatuten hasi dira: dirua ordaindu behar da, kopuru jakin/mugatua hartu behar da... Hartu beharreko neurriak dirala uste dozu?? Zer deritoxozu???**

Kilo bi-edo daukie kopurue, baina hemen ez dago horren bestekorik, hemen kilo bi baino gehiago ezin da hartu, hemen batuko dozuz kilo bat eta hurrengoan kilo erdi, hemen ez dau horrelakorik.

**9. Jateko zuk zeuk ze perretxiko dozu gustukoan? Zelan prestatuta??**

Nik prestatu errebueltoan edo laminek eginda plantxan, gero batzuk saltsatarako be erabiltzen dabez, baina niri gustatu errebueltoan edo plantxan berakatzapur bategaz.

(Argazkiak: Igor Otazua)





1919ko irailaren 21ean sortu zan Euskaltzaindia; hori hola, aurten 90 urte bete dauz gure hizkuntzaz arduratzen dan erakunde ofizialak.

ZORIONAK !!! eta URTE ASKOTARAKO!!!

Erdu Press aldizkari honetatik erakunde honen web orrira sartzera gonbidatu gura zaituztegu ([www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)), bertan informazio interesgarria eta lagungarria aurkituko dozue ikasleok, irakasleok... herritar danok. Hona hemen web orrian topaiko dozuezanetako bazuk:

## • EUSKALTZAINDIAREN ARAUK

## • HIZTEGI BATUA

## • JAGONET ZERBITZUA

Kontsulta- eta aholku-zerbitzua da, euskararen erabilera zuzena eta egokia eragitekoa.

## • IZENDEGIAK

Atal honetan kontsultagai izango dozuez:

- Pertsona izenak
- Deiturak
- Leku izenak
- Kanpoko izenak
- ...

## • OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA (OEH)

Orotariko Euskal Hiztegia: 50 urteko lana

Euskaltzaindiak burutu dauan egitasmo handienetakoa da, zalantza barik, handiena ez bada.

Orotariko Euskal Hiztegia "obra deskriptiboa da; eta ez arauemailea, normatiboa".

Haren xedea garai, toki eta mota guztietako euskal hitz-ondarea biltzea da. Menderik mende eta euskalkietan zehar euskaldunak zelango hizkuntzaz baliatu diran ahalik eta osokien eta zehatzen azaltzeko helburua dauka hiztegi honek. Guztira 16 liburuki dira, 14.028 orrialde, 125.987 sarrera. Eta orain, teknologia barriei esker, euskararen hitz-ondare hori, esan bezala, sarean, edozein erabiltzailearen eskura.




## • ARGITALPENAK

Argitalpenen atalean, erakundeak aterako lan guztiak daukazuez, eta benetan, sinestu egizue, lan asko eta asko dagoz bertan.

Azken argitalpenen atalean aipamena merezidu dau Erlea aldizkariak; Euskaltzaindiak Bernardo Atxaga idazle eta euskaltzainaren zuzendaritzapean argitaratutako aldizkaria da Erlea.

Lau hilabeterik behin aterako dau, eta lehenengo zenbakia kalean dago da borduko, salgai.

Lehenengo zenbaki honetan parte hartzen dabenen zerrenda oparoa da benetan: Harkaitz Cano, Asun Garikano, Joxemari Iturralde, Koldo Izagirre, Xabier Kintana, Mariasun Landa, Anjel Lertxundi, Xabier Lete, Karlos Linazasoro, Mari Jose Olaziregi, Kirmen Uribe, Iban Zaldúa...



## BIZKAIERA HIZTEGIA


Zorioneko gagoz, Euskaltzaindiak egindako lanak ezeze Labayru ikastegiak egindako bizkaiera hiztegia be sarean daukagu kontsultagai.

Hona helbidea: [www.labayru.org](http://www.labayru.org)  
Bizkaiera eta batua buztarturik

Euskera /gaztelania  
Bizkaiera eta Batua buztarturik

## POSTA ZERBITZU BARRIA

Bizkaiko Foru Aldundiak posta zerbitzu barria eukiteko aukerea jarri dau. Informazio gehiago euki zein edozein zantzara girtzeko, [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) bisitatu edota 900 840 250 telefonora deitu zeinkie.



# ARRIETA

## ARRIETA ONDAREARI BURUZKO EUROPAKO JARDUNALDIETAN

Zortzi urte daroaz Bizkaiak ondareari buruzko Europako jardunaldietan parte hartzen. Jardunaldi horreen bidez herritarrei bertoko kultur ondarea ezagutzera emon gura jakie; izan be, ezagutza hori behar-beharrezkoa da geure-geurea dan ondarea baloratu eta babetu gura badogu.



Aurten aukeratutako gaia "Bizkaia bideetan zehar" izan da.

Arrieta udalerrriak aurtengo jardunaldietan parte hartze-

ko ohorea euki dau, eta udalerrriak daukozan "altxorrak" ezagutzera emoteko 2-3 orduko ibilaldia antolatu eban ermitarik ermita.

Urriaren 3an, goizeko 9:30etan, 60 bat lagun plazan alkartu eta Txabi abadearen azalpenak entzun ostean, eta eguraldi ederra lagun, taldeak gogotsu ekin eutson ibilbideari. Ermita bakoitzean, San Kristobal,

San Luis, Andra Mari eta San Pablo izan zanean, osteratxoa egin zan. Amaieran, indarbarritzeko hamaiketako egin zan. Taldeak egindako balorazioa oso ona izan da eta ondoen baloratu izan zana paisaia, ingurua eta giroa. Horrexek, ba, gure altxorrak! Jagon daiguzan!



Euskal dantzak  
asteburu kulturalen



Tailerrak eta  
pailazoak  
Umeen eguna



Kirmen Uribe eta  
Mikel Urdangarin  
Asteburu  
Kulturalen



Margo Lehiaketa  
Umeen egunean

# UMEEN TXOKOA

- 1- Joan zara inoiz perretxikotan?
- 2- Joan zarenean inguruko parajetan ibili zara ala urrunera joan zara?
- 3- Nogaz joan zara perretxikotan?
- 4- Aipatu ezagutzen doduzan perretxiko batzuen izenak?



**BINGEN MARCOS RIVERO, 11 URTE (GAMIZ-FIKA)**

- 1.-Bai.
- 2.-Gamiz-Fikatik kanpo joaten gara gehienetan: Altubera, Orduñara, Sollubera...
- 3.- Aita eta biok joaten gara.
- 4.- Onddo zuriak, baltzak, zizak, saltsa perretxikoak, pardilla edo pago-ziza...



**ALEXANDER DÍEZ ROBERTSON, 8 URTE (ARRIETA)**

- 1.-Bai, behin joan naz perretxikotan.
- 2.- Hurbileko parajeetan ibili naz, Arrieta inguruan.
- 3.- Nire lagunakaz joan naz perretxikotan.
- 4.- Onddo beltza, galanperna, niskaloo...



**MIKEL MALLONA LONGARAI, 7 URTE (FRUIZ)**

- 1.-Bai.
- 2.- Ez naz joan ez urrun ez hurbil.
- 3.- Aitagaz eta Xabigaz.
- 4.- Amanita phalloides, galanpernak, amanita muskaria, mikrofonoak.....




**ANDER ABANDO FERNANDEZ, 8 URTE (MEÑAKA)**

- 1.-Bai, askotan.
- 2.- Solluben, Gorbeian eta Jatan ibili naz.
- 3.- Aitagaz eta Meñakakoakaz.
- 4.- Onddoak, amanita phalloides, perretxikoak, urretxak eta mendiko txipiroiak.

## DENPORA-PASAK

### LOTU BIKOTEAK

Balio bereko arrainak bianaka jarri ebezan Saioak, baina uretara salto egin eta berriro nahastu dira. Eragiketarik egin, eta jarri arrainak binaka



### ZERI ESATEN JAKO... BERATU ???

Galdetu etxean, auzoan, eskolan... Hona hemen laguntzatxoa nondik tiratu eduki daizun.





# Amamak amari esana eta amak niri emana

## ESAERA ZAHARRAK

Ahoa bero, boltsea hotz  
 Hazilla otz, negua otz; hazilla bero, negua bero  
 Eztula hotzez harrapatu eta beroz kendu.  
 Gero! - Hotz eztana bero


## TXISTEAK

### Hileta meza

Abade bat hileta elizkizun batean: *"Pepe, aita ona, senar bikaina, langile aparta, beti soldata etxera eroaten ebana, bere ingurukoekin arduratsua, lagunena laguna..."*


Eta alargunak esaten deutso semeari: *"Begiratu, begiratu hil kutzakoa aita dan"*

[www.euskaraz.net](http://www.euskaraz.net)



**NON DAGO ATARATA ARGAZKI HAU? ARRIETAN, FRUIZEN, GAMIZ-FIKAN ALA MEÑAKAN? BAIETZ IGARRI !!!**

(Aurreko zenbakiko argazkia: Arrietako Kurtziperia)



## LEHENGO JANZKERIA

### GIZONEZKOEK

**Bruse:** atzean joskura bat, haregaz izurtsu-izurtsu ipini eta haxe. Haxe gero nasai-nasai-nasai, manga luzeagaz hemen botoitxu bategaz itxi eta haxe.

**Oinetakoak** astegunetan gurean aitek-eta ba, narruzko abarkea. Bai berak egin be etxean zeragaz, abarka-untzeagaz, tin-tan, tin-tan, eta berak josi, eta berak egin e, danantzat.

**Garrikoa,** garrikoa ibiltan zan. Garrikoa, aitek bai, aitek beti garrikoa, sinturoirik inoiz ez deusatz ezagutu, garrikoa.

**Txapela,** txapela, bai txapela beti, gurean aitek beti txapela.

### ANDRAZKOEK

Gonea izurtsu-izurtzu, eta gero amantala, amantala luze-luzea.

*(Fikako berbakera liburitik hartu eta moldatutako pasartea)*

### ZENBAKI HONETAN PARTE HARTU DABE:

OLATZ AXPE  
 JON GOIRIZELAIA  
 ZURIÑE GOTI  
 ASIER LEGARRETA  
 NEREA MALLONA

**ARRIETA • FRUIZ  
 GAMIZ-FIKA • MEÑAKA**

**EUSKARA ZERBITZUA  
 ZURE ESKU**



EUSKO JAURLARITZA  
 GOBIERNO VASCO  
 HIZKUNTZ POLITIKARAKO SAILORDETZA



Bizkaiko Foru Aldundia  
 Diputación Foral de Bizkaia  
 Kultura Saila  
 Departamento de Cultura